

→ BALOREZKO PROPOSAMENA


Proiektu bat sortzerako orduan, ezinbestekoa da merkatuan dagoeneko dauden produktuak aztertzea, bakoitzak eskaintzen dituen gauzak identifikatuz. Gainera, gizartearen beharrak zeintzuk diren jakitea ere beharrezkoa da. Bi hauek kontuan hartuta, proiektu berri eta erakargarri bat sortu daiteke.

Guk, gizartearen egoera aztertu ondoren, pandemia dela eta online erosketak nabarmen igo direla ikusi dugu. Hori kontuan hartuz, online salmentekin zerikusia duen proiektu bat sortzea aurreikusi dugu, ondorengo onurak dituenak:

- **Nobedadea:** Gure proiektua, inoiz merkatuan eskuragarri egon ez den zerbaite da. Gure ideia, optika dendetatik inspiratua izan da, baina guk sortuko dugun proiektuaren antzekorik ez da inoiz egon.



- **Erosotasuna:** Gure proiektuak, erosotasun asko eskaintzen ditu. Izan ere, guk sortuko dugun software honekin, jendea ez da dendetara arropa probatzera joan behar, etxetik erosotasun guztiekin zure gorputzean oso ondo geratuko



diren arropak probatu eta erosi ahal izango dituzulako. Gainera, hau pertsona nagusientzako oso baliagarria izango da. Izan ere, ez dira dendetara joan behar arropa erosteko. Hori bai, teknologia berriekin pertsona abilenak ez direnez, beraiei laguntzeko manual bat sortuko dugu. Aplikazioa egoki nola erabili jakin dezaten. Gainera, nahi dutenentzat ere, formakuntza batzuk egingo ditugu,

pertsona nagusien informatika maila hobetzeko.

- **Pertsonalizazioa:** Hau da zehazki gure produktuaren helburu naguzienetako bat. Izan ere, norberak maniki birtual bat izango du, pertsonola. Eta gainera, honi dendetako arropak jarri ahal izango dizkiogu, jantziak norbere gorputzean nola geratzen diren ikusi ahal izateko, denda bateko aldageletan egingo zenukeen bezala. Horregaitik, bakoitzari modu batean edo bestean geratuko zaizkio arropak, pertsonalizazioa eraginez.

